DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

BASQUE TEAM

- Basque Team Bekak 2025..... 2

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Basque Team Bekak 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 28koa, lehen lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Basque Team Fundazioak 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirola sustatzeko bekak emateko baimena eman eta oinarriak onartzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503003e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal kirolariak behar bezala prestatzeko eta parte hartzeko mundu mailako nazioarteko kirol-lehiaketa garrantzitsuenetan, eta, bereziki, olinpiar eta paralinpiar programen parte diren lehiaketetan laguntza edo bekak. Era berean, beste laguntza batzuk ematen zaizkie Fundazioak emandako bekak jasotzen dituzten euskal kirolarien goi-mailako teknikariei, bai eta nazioarteko lehiaketa jakin batzuetan parte hartzen duten goi-mailako euskal epaileei ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

138 beka-eskaera egon ziren, eta eskatzaileetatik 98k jaso dute beka.
Aurrekontuan aurreikusitakoa: 991.500 €. Aurrekontua gauzatzea: 869.776 €.
Erabilgarritasun eta inpaktu soziala: helburuak betetzen ditu, eta, beraz, uste dugu erabilgarritasun eta eragin sozial handia duela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Bekak esleitzea	106	98